



**RASSF-AREN ALERTAK ETA JAKINARAZPENAK  
ELIKAGAIAK**

**2010ko 3. LAUHILEKOA**


**elika**

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

2010ko 3. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) elikagaien 1011 alerta eta jakinarazpen berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Identifikatutako arriskuak	Zenbatekoak
Mikotoxinak / biotoxinak	% 29
Kutsadura kimikoa	% 9,5
Kutsadura biologikoa	% 21
Metal astunak	% 5
Hondakinak	% 15
OGMak	% 1,5
Kutsadura fisikoa	% 2
Iruzurrak	% 8
Produktua egoera txarrean	% 9



Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 83,5an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % 34,5 eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% 58,5) kakahuetea **Ameriketatik** zetorren. Bigarren produktu garrantzitsua **espeziak** izan dira, mikotoxinek eragindako kutsaduren %21a, eta kasuen %92an jatorria **India** izan da.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 36,5 eragin ditu. Bakoitzak, kasuen % 4 **Salmonella enteritidis** espezieak eta **Salmonella typhimurium** espezieak eragin du eragin du. Talde horretako protagonista **Salmonella sp.** izan da (kasuen % 92). Eta alerta gehien eragin dituztenak (% 51) **haragia** (abeletzeko hegaztiak barne) izan da. Ea denak europakoak izan dira (%87,5). Belar aromatikoak dira bigarren produktu jakinarazpen eragilea, %25,5an, asia izanik jatorria kasuen %94,5an. Hirugarren lauhileko honetan ere, **Listeria monocytogenes** agertu zaigu garrantzitsu ere, jakinarazpenen


**%18**arekin. Izokin **ketua** da produkturik nabariena **%40** kasuetan jatorria kasu guztietan europa izanik.

Kutsadura kimikoari dagokionez, **Koloragarriak eta Gehigarriak** izan dira eragile nagusiak (kasuen **% 48**). Mota askotako produktuak dira inplikatuak (edariak, goxokiak, espeziak eta arrainak), baina ez dago besteekin erkatuz gero, zenbateko handiagoa duen produktu aipagarriarik. Inplikatuak produktuaren etorki herrialdeak Asiakoak dira gehienbat.

**Metal astunak** gero eta gehiago azaltzen dira jakinarazpen eta alertetan. Hirugarren lauhileko honetan aipagarria **Merkurioa %40,5**arekin eta **ezpatarraina** da produktu inplikatua kasuen **%57**an, eta jatorria: Espainia **%83a**.

<b>Mikotoxinak/Biotoxinak</b>	291	<b>Aflatoxinak</b>	243(83,5%)	kakahueteak	84(34,5%)	Amerika	49(58,5%)
				pistatxoak	51 (21%)	India	47 (92%)
<b>Kutsadura biologikoa</b>	212	<b>Salmonella sp.</b>	77(36,5%)				
		<i>S.enteritidis</i>	3 (4%)	arrutzak	2(67%)	Europa	2 (100%)
		<i>S.typhimurium</i>	3 (4%)	txerria			
		<i>Salmonella sp.</i>	71 (92%)	oilategiko hegaztiak	23(32,5%)	Europa	20(87%)
				belar aromatikoak	17 (25%)	Europa	15 (88%)
		<b>Listeria monocytogenes</b>	38 (18%)	marrazoa	15 (40%)	Europa	15 (100%)
<b>Kutsadura kimikoa</b>	97	<b>Koloratzaile eta gehigarriak</b>	46 (48%)	espeziak, saltsak	ez dago produktu nabariagorik besteak baino		
				goxokiak,ozpinetakoak			
<b>Metal astunak</b>	52	<b>Merkurioa</b>	21 (40,5%)	karramarroa	12(57%)	Espainia	10(83%)
		<b>Kadmioa</b>	17 (34%)	ezpatarraina	10 (59%)	Asia	9 (90%)

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoa izan dira:



Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 26,5 Turkiakoak dira, eta kasuen % 23arekin ere, India dugu. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortzen duten herrialdeak Espainia kasuen % 16 eta Italia % 11,5 dira. Azkenik, Amerikaren kasuan AEB eta Argentina dira nabarmen jakinarazpen gehien sortzen dutenak (%25 herrialde bakoitzak).

### AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

Aurreko lauhilekoarekin erkatuz gero, ondorengoa da azpimarratzekoa:

- Aipagarria da *E.coli* jakinarazpenen igoera lauhileko honetan ere, nahiz eta honako honetan arinagoa izan, 18 (% 8) bigarren lauhilekoan hirugarren lauhilekoan, berriz, 23 (% 11).
- Igoera garrantzitsua mikotoxinen (gehien bat aflatoxinak) jakinarazpenen kasuan, %21,5etik %29ra.
- Merkurioagatik jakinarazpenen jeitsiera, 35 (%52)tik 21 (%40,5)ra pasatuz.
- Iruzurren jeitsiera arina, %9,5etik %8ra.
- Salmonella espezieak eragindako kasuen igoera, %29,5tik % 36,5era.